

HAGINA / EL TEJO

Milaka urteko zuhaitza naiz, balio kultural, natural eta zientifiko handikoa, eta bakantzat jotzen naute.

Urteetan zuhaitz sakratua izatetik arriskuan egotera igaro naiz gizakientzat.

Hori gorabehera, Pagoetan erraz ikus nazakezu. Nire adaburuagatik ezagutuko nauzu, beti berde baitago, bai eta nire enborragatik ere, forma bitxiak izan ohi ditu eta. Gainera, emea banaiz, nire haziak arilo gorri inguratuta egongo dira.

Soy un árbol milenario con un enorme valor cultural, natural y científico, considerado una rareza.

A lo largo del tiempo los humanos han pasado de considerarme un árbol sagrado a ponerme en peligro.

A pesar de ello, en Pagoeta puedes encontrarme fácilmente. Me reconocerás por mi copa siempre verde, mi tronco con formas caprichosas y, si soy hembra, por los arilos rojos que rodean mis semillas.



HISTORIAN ZEHAR / EN LA HISTORIA

Kultuzko zuhaitza izan naiz Penintsula iparraldeko kultura aurre-kristautentzat. Sinesmen horiek kristautasunarekin nahasi ziren, eta ohikoa da ni hilerrietan, ermitetan, elizetan eta abarretan aurkitzea.

Gure kulturen sarritan agertzen naiz, esaterako, Gipuzkoako armarran eta beste herri batzuetakoan agertzen den zuhaitza naiz.

AAginaga edo Agirre hitzen erroa naiz. Adin hitzak ere seguruenik erro hori bera du, "Urteak, jakituria" esan nahi duela ulertuta, bilerak eta zin egiteko zuhaitza naizen heinean, eta horrek ere Agindu eta Agintari hitzekin harremana izatea ekarriko luke.

He sido un árbol de culto para las culturas precristianas del norte Peninsular. Estas creencias se mezclaron con el cristianismo, y es frecuente encontrarme en cementerios, ermitas, iglesias...

Aparezco a menudo en nuestra cultura, soy el árbol del escudo de Gipuzkoa y de otras localidades.

Soy la raíz de palabras como Aginaga o Agirre. También probablemente de Adin, entendido como "Edad, sabiduría" por mi papel como árbol de reunión y juramento, que también me relacionaría con Agindu y Agintari.



MEHATXUAK / AMENAZAS

Iraganean nire egurra oso preziatua izan da. Ötziko gizakiak, duela 5.000 urte baino gehiago hil zena, hagin egurrez egindako aizkora bat eta arku bat zeramatzan.

Erdi Aroan, Ingalaterrak kantitate handiak behar zituen bere arku luze beldurgarriak fabrikatzeko, eta euskal merkatariek bertan saltzeko muga-zergak haginezko tabilekin ordaindu behar zituzten.

Ondoren, Erresuma Batuaren kontrolpean zeuden arrantza tokietara sartzeko baimena ere hagin egurrearekin ordaintzen zen.


Egun, ditudan mehatxuek batez ere zoruen erabilera aldaketekin, suteekin eta belarjaleak ugaritzearekin dute zerikusia.

En el pasado mi madera ha sido muy valorada. El hombre de Ötzi, fallecido hace más de 5.000 años, llevaba un hacha y un arco hechos de tejo.

En la Edad Media Inglaterra necesitaba grandes cantidades para fabricar sus temidos arcos largos, y los comerciantes vascos debían pagar en duelas de tejo los aranceles para comerciar allí.

Posteriormente, el pago por acceder a caladeros controlados por Reino Unido también se realizaba con madera de tejo.

Actualmente mis amenazas se relacionan más con los cambios en los usos del suelo, los incendios y la sobreabundancia de herbívoros.



PROIEKTUA / EL PROYECTO

LIFE BACCATA proiektuaren helburua da haginaren eta hagin basoen kontserbazio egoera hobetzea Kantauriar Mendilerroan.

El objetivo del proyecto LIFE BACCATA es mejorar el estado de conservación del tejo y las tejedas en la Cordillera Cantábrica.

EKINTZAK / ACCIONES

EZAGUTU

- Haginaren habitataren kartografia eguneratzea.
- Hagin basoa zer den eta nola kudeatu behar den adostea.
- Bere populazioen harreman genetikoak aztertzea.

KONTSERBATU

- Bere mehatxuak kontrolatzea (sutea eta belarjale gehiegi egotea).
- Bere populazioak handitzea, hagina eta espezie laguntzaileak landatuz.
- Hagin basoak hobetzea, haginarekin lehian dauden espezieak kenduz.
- Habitataren konektibitate ekologikoa areagotzea.
- Bere material genetikoa kontserbatzea germoplasman bankuetan, arboretoetan, eta EUFORGEN programa europarrean.

ZABALTZEA

- Jabeak habitataren kontserbazioan inplikatzeko.
- Hagin basoak kontserbatzeko ezagutzak trukatzeko beste ekimen batzuekin.
- Biztanleak oro har sentsibilizatzea eta habitataren gainean duten ezagutza areagotzea.

CONOCER

- Actualizar la cartografía del hábitat del tejo.
- Consensuar qué se entiende por tejeda y cómo gestionarlas.
- Estudiar las relaciones genéticas de sus poblaciones.

CONSERVAR

- Controlar sus amenazas (fuego y exceso de herbívoros).
- Aumentar sus poblaciones, plantando tejo y sus especies acompañantes.
- Mejorar las tejedas, eliminando especies competidoras.
- Incrementar la conectividad ecológica del hábitat.
- Conservar su material genético en bancos de germoplasma, arboretos y en el programa europeo EUFORGEN.

DIVULGAR

- Implicar a los propietarios en la conservación del hábitat.
- Intercambiar conocimientos con otras iniciativas para la conservación las tejedas.
- Sensibilizar y aumentar el conocimiento de la población en general sobre el hábitat.